

# TXOSTENA “BI METRO, IDEIA BAT”

## ESPAZIOAREN BIDEZKO PARTAIDETZARI BURUZ

DOS  
METROS,  
**UNA  
IDEA**



Bildutako proposamenak:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/trantsiziorako-normaltasunera-bidean>

“**Bi metro, ideia bat**” izeneko espazioa Nafarroako Gobernuak ireki zuen deskonfinamenduaren prozesuari buruzko argibideak zabaltzeko eta kontu emateko, eta, baita ere, gizarte osoaren partaidetza ahalbidetzeko. Hemendik, herritarrek beren proposamen, ekimen eta kezak helarazi ahal izan dizkiote Trantsiziorako Batzordeari eta modu aktiboan lagundu ahal izan dute normaltasun berrirako trantsizio-plana garatzen.

## **Hitzaurrea**

Nafarroako Gobernuak **“Bi metro, ideia bat” espazioa ireki zuen deskonfinamenduaren berri zabaltzeko, kontu emateko eta** herritarrek normaltasun berrirako trantsizioan parte har zezaten sustatzeko. Horiek horrela, berariaz sorturiko Batzordeko adituen lankidetzaz gain, nafar gizarte osoaren lankidetzaz aktiboa ere ahalbidetu zen. Zehazki, Gobernu Irekiaren webgunearen bidez sartu ahal izan da espaziora, eta han modua egon da osasunari, ekonomiari, mugikortasunari, gizarteari eta beste arlo batzuei buruzko proposamenak eta ekimenak aurkezteko deskonfinamenduak izan dituen fase guztietan zehar, harik eta normaltasunera itzuli garen arte.

Maiatzaren 13tik ekainaren 30era arte 192 ekarpen jaso dira, gehienak esparru ekonomikoarekin eta mugikortasunarekin lotuak, eta horrek erakusten du zernolakoak izan diren Nafarroako gizartearen konpromisoa eta partaidetza zabala.

**Nafarroako Gobernuak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei espazioan parte hartzeagatik, normaltasun berrira ahalik eta modurik onenean joateko proposamenak eta ideiak emateagatik.**

Espazioa ireki zen, besteak beste, herritarrendako “leku” bat gordetzeko COVID19 Trantsizio Batzordean. Nafarroako gizartean erreferente diren hainbat lagunek osatu dute organo aholku-emaile hori, eta aldizka bildu dira deskonfinamendu-prozesua gidatzeko tresna nagusietako bat izan den lantalde horretan. Batzordekide horiez gain, Nafarroako Gobernuak herritar guztiak hartu nahi izan ditu kontuan ibilbide-orria egiteko, eta, horretarako, “Bi metro, ideia bat” espazio digitalean parte hartzeko atal bat sortu du, Nafarroako gizarteari hitza emateko batzorde horretan.

[Esteka](#) honetan ikus daitezke batzordeak eginiko bilerak. Astero, herritarrek espaziora igorritako ekarpenak helarazten zitzaizkion Trantsizio Batzordeari. Ekarpen horiei banaka erantzuten zitzaizkien, herritarrei itzultzen zitzaizkien erantzunak hemen argitaratuz:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/trantsiziorako-normaltasunera-bidean>

## Informazioa eta gardentasuna

Partaidetza kalitatezkoa izan dadin, ezinbestekoa da irekitzen diren espazioetan gaiari buruzko informazioa egotea; hortaz, gobernu irekiaren orriaren bidez ([esteka](#)), parte hartzeko espazioaz gain, normaltasun berrirako trantsizioari buruzko informazio guztia eman da. Espazio horretan, zehazki, bloke hauei buruzko informazioa egon da:

- **Trantsiziorako plana:** Plana bera agertzen da, baita adierazleak, fase bakoitzean baimenduriko eta baimendu gabeko jarduerak eta gutxi gorabeherako kronograma ere. Gainera, trantsizioan ematen ari diren arauak eta jarraibideak azaltzen dira.
- **Trantsizioari buruzko ohiko galderak:** planari buruzko ohiko galderen erantzunak agertzen dira. Faseka antolatuta daude, eta une honetan 0. faseari, 1. faseari, 2. faseari, 3. faseari eta normaltasun berriari dagozkien erantzun zehatzak aurkitu daitezke bertan.
- **Trantsiziorako batzordea:** atal horretan ikus daiteke batzorde hori zer den, kideak nor diren, bileretan izandako eztabaidak, herritarrek egin eta kontuan hartu diren ekarpenak.
- **Trantsizioaren egoera Nafarroan:** Nafarroaren egoerari buruzko informazioa, deskonfinamenduaren faseen arabera
- **Pandemiaren egoera eta bilakaera:** Atal horrek "Gardentasuna eta Bilakaera" orrira eramaten du eta hartan dago Covid 19 koronabirusak eragindako egoerari, inpaktuari, araudiari, hartutako neurriei eta gomendio orokorrei buruzko informazio eguneratua.
- **"Bi metro, ideia bat" Hartu parte!:** Zure ideiak balioko du guztion artean konponbideak lor ditzagun deskonfinamenduaren fase honetan aurre egin beharreko erronketarako. Adi entzuteko espazioa da hau, normaltasun berrirako trantsiziorako ideiak biltzeko tokia. Haiendako gorde den espazio horren bidez, herritarrek Trantsizio Batzordera bildu eta hartan parte hartzen dute.


"Bi metro, ideia bat" espazioa sortu zenetik ekainaren 29ra arte, guneak **10.673 bisita** izan ditu, eta maiatzaren 14a izan da bisita gehien izan dituen eguna (1.566). Interesgarria da nabarmentzea orri orokorra izan dela bisitatuena: 4.631 bisita izan ditu. Bigarrenik, herritarren ekarpenak jasotzeko zabaldu den orria izan bisitatuena: 3.253. Bestalde, ohiko galderen atalak 690 bisita izan ditu.

## Partaidetza datuetan

Ondotik, 2020/05/13tik 2020/06/30era bitartean egindako ekarpenen datuak zerrendatzen dira, arloka, sexuaren arabera bereizita eta ekarpenen kopurua egunka banatuta.


EKARPENAK ARLOKA					
EKONOMIA	MUGIKORTASUNA	GIZARTEA	OSASUNA	BESTELAKOAK	GUZTIRA
66	48	33	23	22	<b>192</b>

### Ekarpenak arloka



EKARPENAK SEXUAREN ARABERA			
GIZONAK	EMAKUMEAK	BESTELAKOAK	GUZTIRA
74	109	9	<b>192</b>

### Ekarpenak generoaren arabera



EKARPENAK EGUNKA	
EGUNA	EKARPEN KOPURUA

05/14	26
05/15	17
05/16	20
05/17	12
05/18	11
05/19	10
05/20	9
05/21	6
05/22	10
05/23	8
05/24	4
05/25	6
05/26	5
05/27	3
05/28	4
05/29	8
05/30	3
05/31	1
06/1	1
06/2	1
06/3	2
06/4	9
06/5	1
06/6	3
06/8	5
06/9	1
06/10	1
06/12	3
06/15	1
06/17	1
06/18-06/30	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>192</b>

## **Berriak**

Espazioa zabalik egon den bitartean, hedabideetan bi albiste argitaratu dira; hemen irakurgai:

- <https://www.navarra.es/eu/albisteak/2020/05/13/foru-gobernuak-bi-metro-ideia-bat-espazioa-sortu-du-covid-19ren-deseskaladarako-trantsizioan-herritarren-parte-hartzea-sustatzeko>
- <https://www.navarra.es/eu/albisteak/2020/06/06/-bi-metro-ideia-bat-gizartearen-parte-hartzerako-guneak-177-proposamen-jaso-ditu-gehienak-ekonomiarekin-eta-mugikortasunarekin-lotutakoak>